

189. FITXA GIPUZKOA – Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak eta mankomunitateak (ikusi oinarrietan baldintza espezifikoak).

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jardueretarako Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak](#)

Eremuak: Berdintasuna

Zenbatekoa: 400.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/02/02

Laburpena

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek –banaka eta/edo bat baino gehiago batera aurkeztuta– eta mankomunitateek, baldin eta **proiektu estrategikoak garatu eta abian jarri nahi badituzte emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikaren esparruan**, betiere ondoko hiru elementu hauek bilduko dituen berdintasunerako politika garatzeko esparru egonkor bat badute:

- Berdintasunerako plangintza.
- Berdintasunerako politika garatzeko berariazko aurrekontua.
- Plantillan berdintasunean espezializatutako teknikari propioak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1 lerroa: Berdintasunaren arloan lehentasunezkoak diren esku-hartze eremuei lotutako proiektuak. Honako hauek dira:

- Udal politiketan genero-zeharkakotasuna sustatzea: berdintasunari buruzko prestakuntza, estatistikak eta azterlanak egokitzea, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa, dirulaguntza eta kontratu publikoetan berdintasun klausulak txertatzea, aurrekontuak genero

ikuspegitik aztertzea, eta abar.

- Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozial eta politikoa sustatzea.
- Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea, batez ere gazteekin, eta arreta hobetzea emakumeen ahalduntzearen ikuspegitik.
- Kontziliazio erantzunkidea sustatzea, emakumeek eta gizonek laneko bizitzan, familia bizitzan eta bizitza pertsonalean duten parte-hartzean dauden desberdintasunak gainditzeko eta gizonek zaintzan duten erantzunkidetasuna sustatzeko.

2. lerroa: Udaletako ahalduntze espazioen jarduera gisa eratzen diren jarduerak garatzen dituzten proiektuak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskaerako jarduerak **2026ko urtarrilaren 1etik 2027eko azaroaren 15era bitartean** gauzatu beharko dira. Salbuespen gisa, data horren ondorengo jarduerak onartu ahal izango dira; nolanahi ere, ezin izango da inolaz ere **2027ko abenduaren 10eko** data gainditu eta, kasu horretan, zuriaketa **2027ko abenduaren 20a** baino lehen aurkeztu beharko da.

Laguntzen zenbatekoa

Lerro bakoitzeko proiektu bat aurkeztu ahal izango da, gehienez, udal edo mankomunitate bakoitzeko. Bi proiektuen baturak eskatutako gehieneko zenbatekoa **40.000 eurotik** gorakoa ezin du izan.

Erakunde onuradunak jardueraren gastuaren aurrekontu osoaren **% 20** finantzatu beharko du gutxienez.